


Euskal AEko industria-jarduerak % 8,9 egin du behera 2021eko otsailean

Aurreko hilarekin –2021eko urtarrila– alderatuta, Industria-produkzioaren indizeak % 1,1 egin du behera

Euskal AEko industria-produkzioak % 8,9 egin du behera 2021eko otsailean, 2020.urteko hil beraren aldean, lan-egutegiko baldintza homogeneoetan, Eustatek emandako datuen arabera.

Otsaila aurreko hilearekin alderatuta, 2021eko urtarrilarekin, Euskal AEko industria-produkzioak % 1,1 egin du behera, urtarotako ondorioak zuzendu ondoren.

**Euskal AEko industri produkzioaren indizearen urte-
arteko aldakuntza-tasa (%)**
Jaiegunen eraginetatik zuzendua



Iturria: Eustat. Industria-produkzioaren indizea

2021eko otsaileko indizearen bilakaera 2020ko otsailekoaren aldean negatiboa izan da industria-sektore handi guztietan. *Ekipo-ondasunek* % 13,5eko beherakada izan dute. Haien artean honako hauek daude: motordun ibilgailuen fabrikazioa; lokomotorren eta trenbide-materialaren eraikuntza, eta eraikuntza aeronautikoa eta ontzigintza. *Energiak* % 10,9 egin du behera eta *Tarteko ondasunek*, % 8,6. Lehenengoen artean, energia elektrikoaren hornidura eta petrolioaren fintzea aipatu behar dira, eta, bigarrenen artean, metalurgia-jarduerak eta produktu metalikoen fabrikazioa, industria kimikoa eta kautxuzko eta plastikozko produktuen fabrikazioa daude.

Kontsumo Ondasunek, oro har, % 6,1eko urte arteko beherakada izan dute, *Kontsumo-ondasun ez-iraunkorren* % 6,3ko beherakadaren eta *Kontsumo-ondasun iraunkorren* % 5,5eko beherakadaren ondorioz. Honako hauek dira, besteak beste,

Kontsumo-ondasun ez-iraunkorren sektore handiaren barruan sartzen diren jarduerak: elikagaien fabrikazioa, prozesatua eta kontserbazioa; garbitasunerako eta higienarako produktuen fabrikazioa, eta arropen jantzigintza. *Kontsumo-ondasun iraunkorren* epigrafean altzarien eta etxeko aparatuen fabrikazioaren jarduerak daude.

Hilabeteen arteko aldakuntzak, 2021eko otsailekoak, 2021eko urtarrilaren aldean, zeinu negatiboa izan du industria-sektore handi guztietan. *Ekipo-ondasunek* % 3,2 egin dute behera hilen arteko terminoetan; *Tarteko ondasunek*, % 1,7, eta *Energiak*, % 1,5. *Kontsumo Ondasunek*, oro har, % 1,4ko beherakada izan dute ekoizpenean, *Kontsumo-ondasun iraunkorren* % 4,8ko beherakadaren eta *Kontsumo-ondasun ez-iraunkorren* % 0,5eko beherakadaren ondorioz.

Euskal AEko Industria-produkzioaren indizea. Hazkunde-tasak. Behin-behineko datuak. 2021eko otsaila

	Egutegiaren eragina zuzendutako datuak		Datu desestazionalizatuak	
	Ots2021 / Ots2020	A(Ots2021) / A(Ots2020)(*)	Ots2021 / Urt2021	Urt2021 / Abe2020
Indize orokorra				
Euskal AE	-8,9	-6,6	-1,1	1,5
Araba/Álava	-15,6	-10,9	-3,6	1,1
Bizkaia	-5,9	-6,6	0,5	3,0
Gipuzkoa	-7,4	-3,9	-1,1	0,4
ONDASUNEN HELBURU EKONOMIKOAREN ARABERAKO INDIZEAK				
Kontsumo-ondasunak	-6,1	-4,6	-1,4	1,4
Kontsumo-ondasun iraunkorrak	-5,5	0,5	-4,8	2,9
Kontsumo-ondasun ez-iraunkorrak	-6,3	-5,9	-0,5	1,0
Ekipo-ondasunak	-13,5	-9,5	-3,2	0,5
Bitarteko ondasunak	-8,6	-5,5	-1,7	0,9
Energia	-10,9	-11,7	-1,5	7,4

(*) 2021ko urtarritetik oraingo hilera arte metatutako urte arteko aldaketa-tasa, 2020eko aldi beraren aldean

Iturria: Eustat. Industria-produkzioaren indizea

Maila bereiziagoan, Euskal AEko industrian pisurik gehien duten sektoreen artean, 2021eko otsailean urte arteko portaera positiboa izan duen bakarra *Material eta ekipo elektrikoa* izan da, % 6,7 egin baitu gora ekoizpenean. Beherakada handiena erregistratu duten pisu gehieneko sektoreak honako hauek izan dira: *Garraio-materiala* (% 17,8 behera); *Metalurgia eta produktu metalikoak* (% 12,2 behera) eta *Makinak eta ekipoa* (% 11,5 behera), egutegi-ondorioak zuzendu ondoren.

Euskal AEko Industria-produkzioaren indizea. Sektore nagusiak. Urte arteko hazkunde-tasak. A-38 sektorizazioa. Behin-behineko datuak

	m / m-12
A38 SEKTORIZAZIOA	
SEKTORE NAGUSIAK⁽¹⁾	
10 - Metalurgia eta produktu metalikoak	-12,2
16 - Energia elektrikoa, gasa eta lurruna	-10,0
09 - Kautxua eta plastikoak	-9,9
13 - Makineria eta tresneria	-11,5
14 - Garraio-materiala	-17,8
03 - Elikaduraren, edarien eta tabakoen industriak	-8,6
12 - Material eta tresneria elektrikoa	6,7
05 - Zurgintza, papera eta arte grafikoak	-6,1

Egutegiaren eragina zuzendutako datuak

(1) Euskal Aeko industrian pisurik handiena duten sektoreak

Iturria: Eustat. Industria-produkzioaren indizea

Otsailean Industria-produkzioaren indizearen urte arteko bilakaera negatiboa izan da hiru lurraldeetan. Hala, Araban % 15,6 egin du atzera; Gipuzkoan, % 7,4, eta, azkenik, Bizkaian, % 5,9.

Hilen arteko terminoetan, 2021eko otsaila 2021eko urtarrilaren aldean, eta urtaroengatiko ondorioak atera ondoren, honako hau ikusi da: Bizkaian ekoizpenak % 0,5 egin du gora; Araban, % 3,6 behera, eta, Gipuzkoan, % 1,1 behera.

INFORMAZIO OHARRA

Egutegiaren eta serieen desestazionalizazioaren eraginak zuzentzeko erabilitako ereduak COVID-19ak aztertutako aldagaien gainean izandako eragina jaso dute, Europar Batasuneko Bulego Estatistikoak (Eurostat) [Guidance on Time Series Treatment in the context of the COVID-19 crisis](#) ohar metodologikoan emandako gomendioei jarraikiz.

Eustatek eskerrak eman nahi dizkie informazio-bilketan elkarlanean jardun duten establezimendu guztiei. Haiei esker, otsaileko indizea laginaren **% 92,76**ko estaldurarekin kalkulatu da –haren informazioa martxoan jaso da–.

Informazio gehiagorako:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastian kalea, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Prentsa-zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tel.: 945 01 75 62